

## MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEA (2005)

Irailaren 16tik 22ra

Legazpiko Udalak Mugikortasunaren Europako Astearen alde egin du eta horrela adierazi du sinatu berri duen Atxikitze-gutunean. Honako hau da aurtengo lema: "LANERA NIRE AUTORIK GABE". Horrekin, lanera joateko autoa hartzeaz hausnarketa bultzatu nahi da.

Europako beste hiri eta udalerritan egin den bezalaxe, hainbat ekintza antolatu dira gure herriko bizilagunak leku batetik bestera joateko dauden beste aukerak erabiltzearen beharraren gainean sensibilizatzeko: oinez, bizikletaz, autobusez, trenez...

Asteazken zehar ekintza desberdinak burutuko dira. Baina denetik irailaren 22a izango da egun bereziena, egun horretan ospatuko baitugu "HIRIA NIRE AUTORIK GABE" lemapeko eguna; egun horretan ahalegin berezia eskatuko diegu herritarrei autoa erabil ez dezaten eta, modu horretan, leku batetik bestera joateko dauden aukera desberdinak erabiltzearen abantailak ezagut ditzaten (kutsadura eta zarata gutxiago, elkarren arteko harreman handiagoa...)

### LEGAZPIN EGINGO DIREN EKINTZAK

EGUNA	ORDUA	TOKIA	EKINTZA
16-22		Udaletxearen atzeko balkoia	Euskalerria enparantzan <b>PANKARTA</b> jarriko da Mugikortasun Iraunkorraren Astea dela gogora ekarriz. Pankartan argazki-lehiaketan irabazi duten argazkiak azalduko dira. Helbura: legazpiarrok aste horren berri izan dezagun.
16-22			Mugikortasun Iraunkorraren Europako Asteari buruzko <b>HIRUORRIKOAK BANATUKO</b> dira herritarren artean.
17	11:00	Latxartegi	<b>IRISGARRITASUN-JOKOA GUZTIONTZAT.</b> Ibilbide bat markatzen da eta bertatik doan jokalaria baliabide desberdinak erabiltzen ditu: gurpil-aulkiak, makuluak, erosketarako orgak,...Helburua: elbarriek eta ume-kotxeak edo erosketarako orgak daramatzaten gurasoek egunero aurkitzen dituzten trabetaz ohartzea.  Horrezaz gain, ONCEkoen laguntza izango dugu eta pertsona itsuek dituzten zailtasunen berri emango digun tailerra egingo da.
19-23	17:30 – 20:30 Astelehenetik ostiralera	Kultur Etxea	<b>ESKUALDE MAILAKO MUGIKORTASUN PLANARI BURUZKO ERAKUSKETA</b> eta FOKATU UROLA GARAIA izeneko mugikortasunari buruzko argazki-lehiaketako argazkien erakusketa.
20	10:00	Kultur Etxea	FOKATU UROLA GARAIA izenpean eskualdean mugikortasunaren gainean egin den argazki-lehiaketaren <b>SARI-BANAKETA.</b>
22	18:30	Euskalerria enparantzan hasi eta bukatuko da eta Legazpitik zehar igaroko da.	<b>BIZIKLETA-IBILALDIA</b> Legazpin zehar. Laguntzailea: Korosti Txango-txirindularien elkarteak. Parte hartuko duten pertsonak garbi izan behar dute ibilaldia ez dela lasterketa bat, gure herrietan bizikleta erabiltzeko errebindikazio-ekintza baizik.  Oparitxo bat emango zaie, irteera-lekuan agertuko diren lehenengo 100 herritarrei.  Ez ahaztu kaskoa !!!!
22	18:00 – 20:00	Euskalerria enparantza, Kale Nagusia, Patrizio Etxeberria kalea, Nafarroa kalea eta Plazaola kalea.	<b>KALEKO ANIMAZIOA:</b> mimo edo pailazo bat, oinez edo bizikleta hartuta Legazpitik ibiliko da eta bizikletaz, oinez, autobusez,... doazen herritarrak zoriandu eta animatu egingo ditu.